

# HEMENDIK AURRERA

## BRANKA EUSKARAZ IZANEN DA

Orain arte BRANKA agerkari hau eskuratu duten irakurle guziek ikusi dute nola hiru mintzairetan egina zegoen. Beharbada jokabide hori irakurle aintzek ongi ikusten ere zuten. Zergatik alda beraz, orain arte jarraitu den bidetik ? Bai, zertako hamalagarren zenbaki hunetarik harat agerkari hau dena euskaraz idatzi ?

Lehenik esan behar duguna da aspalditik asmo hori gogoan ginabilala Branka-ko idazle eta laguntzaileen artean. Orain arte hiru mintzairetan, euskaraz, frantsesez eta españolez, idatzi baldin badugu, huna hitz batez esateko zergatik izan den : gure ideien eta asmoen gehiago zabalteko eta ezagutarazteko. Gaurko egunean ba dugu ustea, alde batetik orain duela bost urte baino gehiago euskaraz irakurtzen dela eta bestetik berriz gure ideia eta asmakizun guziak baitezpadatuki behar ditugula euskara geure mintzairaren eiherran irdatzi. Oraingo uste berri hunek ez du esan nahi euskaraz beste mintzairarik ez dugula onartzen gure artean eta Euzkadin. Baina bai Euskaldunak girenaz gain euskara behar dugula baliatu eta baliarazi.

Bixtan den gauza beste mintzairak ere baliatuko ditugula orain arte bezala gero ere, baina ez molde berean. Hemendik goiti euskara dugu itzuliko bai españolera bai eta frantsesera. Hala nola idazgai bat garrantzi haundikoa gertatzen bazaigu, Branka-n idatziko dugu euskaraz eta gero orrialde bereiz batzuetan erdaraz itzuliko.

Jokabide berri hunekin bi helburu ditugu segitzen. Lehena euskara baliatu eta baliatuz landu, berritu eta azkartu. Bigarrena euskaratik erdarara itzulpenak eginez abertzalego sozialistaren bideak ahalik eta gehienik ezagutarazi eta egiazko abertzalegoaren kontra ateratzen diren indar eta jokabide arrotzak, bai eta euskaldunak, gure Euzkadi-n biiz diren guzien jakinean ezarri. Ageri den gauza da aipatu ditugun indar hauek nahiago luketela euskaraz idaz bageneza bakar-bakarrik. Zergatik ? Orduan euskara ulertzen ez duten guziek ez bailezakete gure ideien berri jakin ! Euzkadi-ren azkatasunaren eta euskalduntzearen kontra ari diren indarren jokoa ez baigenezake euskara aditzen ez duten herritarreri entzun araz ! Horra zergatik eginen dugun erdaraz ere.

Indar berezi bat eskatuko dugu beraz gure irakurle guzietan, agerkari hunen bururen buru irakurtzeko.